


FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresak haibat funtsezko baliabide behar ditu ongi funtzionatzeko:

- Baliabide fisikoak: gure [instalakuntza](#) Belaskoenean alokatuko dugu; bertan Solar Chip-aren produkzioari ekingo diogu. Beste aldetik, han bertan, gure bulegoak erantsiko ditugu eta bertatik zuen deiak hartu eta eskaintzak asetuko ditugu.



- Baliabide intelektualak: hauek gure enpresarentzat oso kontzeptu garrantzitsuak dira. Gure salmenta puntuak honako hauek izango dira: Media Mark, Worten, Forum Sport, ... Guk diseinatutako web-orri bat sortuko dugu eta bertan gure historia, lan egiteko modua eta produktua erosteko aukera egongo da. Produktuari patentea egingo diogu lau bazkideen artean betirako guretzat izateko eta horrela bakarrik guk izango dugu eskubidea fabrikatzeko eta saltzeko.
- Giza baliabideak: gure langileak ez dira kualifikatuak izan behar, baina lan egiten hasi baino lehen egun bateko ikastaroak emango zaizkie instalazioak eta lan egiteko modua ikusteko eta ikasteko. Bulegoetan guk lan egingo dugu, telefonoa hartzen, kontabilitatea eramaten eta dena ikuskatzen.
- Finantza baliabideak: hasieran kreditu bat eskatu behar izango dugu banketxe batera 11.143,65€ kantitatekoa geroago itzuliko duguna. Horri esker lehenengo soldatak, lehengaiak, makinak eta instalakuntzak ordaindu ahal izango ditugu. Horrez gain, zenbait esku diru aurretik inbertituko dugu eta geroago interes txikiekin itzuliko dugu.